Bestelako Xedapenak

KULTURA SAILA

4587

EBAZPENA, 2010eko irailaren 6koa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, Gaubeako (Araba) Villanuevako presa, Monumentu izendapenaz, Sailkatutako Kultura Ondasun deklaratzeko espedienteari hasiera eman eta jendaurrean jarri eta interesdunei entzuteko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoak, Konstituzioaren 148.1.16 eta Estatutuaren 10.19 artikuluen babesean, eskumen osoa bereganatu zuen Kultur Ondareari dagokionez. Aipaturiko eskumen horretaz baliatuz, Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legea, kultura-interesa duten Euskal Autonomia Erkidegoko ondasunak deklaratzeko prozedurak arautzen dituena onartu zen.

Gaubeako (Araba) Villanuevako presak daukan kultura-interesa azterturik, eta Kultura Ondarearen Zentroko Zerbitzu Teknikoek aurkezturiko Ebazpen Proposamenari jarraituz, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Gaubeako (Araba) Villanuevako presa, Monumentu izendapenaz, Sailkatutako Kultura Ondasun deklaratzeko espedienteari hasiera ematea, I. eranskinean egindako mugaketa eta II. eranskinean egindako deskribapenaren arabera, hala nola III. eranskinean atxikitzen den babes-araubidea ere kontutan hartuz.

Espediente honi hasiera emateak Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeak sailkatutako ondasunentzat ezartzen duen babes-araubidearen behin-behineko aplikazioa eragingo du Gaubeako (Araba) Villanuevako presarengan.

Bigarrena.– Gaubeako Udalari eta Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailari eta Tokiko Administrazioaren eta Lurralde Orekaren Sailari honako honen berri ematea: prozedurari hasiera emateareKin batera eten egingo direla eragindako eremuan lur-zatiketak, eraikuntzak edo eraisketak egiteko emandako udal-baimenak eta ez dela aurrerantzean horrelako baimenik emateko biderik izango eremuan. Inguru horretan ezinbestean eta gerorako utzi ezin daitezken lanak egin behar badira, beti ere, Foru Aldundiaren baimena izan beharko da.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE CULTURA

4587

RESOLUCIÓN de 6 de septiembre de 2010, del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, por la que se incoa y se somete a información pública y audiencia a los interesados el expediente para la declaración de Bien Cultural Calificado, con la categoría de Monumento, a favor de la presa de Villanueva de Valdegovía (Álava).

La Comunidad Autónoma del País Vasco, al amparo del artículo 148.1.16 de la Constitución y a tenor del artículo 10.19 del Estatuto de Autonomía, asumió la competencia exclusiva en materia de Patrimonio Cultural. En ejercicio de la misma, se aprueba la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco que rige los procedimientos de declaración de bienes de interés cultural de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Visto el interés cultural de la presa de Villanueva de Valdegovía (Álava) y atendiendo a la propuesta de resolución presentada por los Servicios Técnicos del Centro de Patrimonio Cultural,

RESUELVO:

Primero.– Incoar el expediente de declaración como Bien Cultural Calificado, con la categoría de Monumento, a favor de la presa de Villanueva, sita en Valdegovía (Álava), según la delimitación que se determina en el anexo I de la presente Resolución y teniendo en cuenta la descripción que en el anexo II se establece de la misma, así como el régimen de protección que se incorpora en el anexo III.

La incoación de este expediente determinará respecto a la presa de Villanueva de Valdegovía (Álava), la aplicación provisional del régimen de protección previsto en la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco para los bienes calificados.

Segundo.– Hacer saber al Ayuntamiento de Valdegovía, así como a los Departamentos de Euskera, Cultura y Deportes y de Administración Local y Equilibrio Territorial de la Diputación Foral de Álava que la incoación del presente procedimiento causa la suspensión de las correspondientes licencias municipales de parcelación, edificación o demolición en las fincas afectadas ya otorgadas, así como el cese de su otorgamiento. Las obras que por razón de fuerza mayor hubieran de realizarse con carácter inaplazable en las fincas precisarán, en todo caso, autorización de la Diputación Foral.

Hirugarrena.– Gaubeako (Araba) Villanuevako presa, Monumentu izendapenaz, Sailkatutako Kultura Ondasun deklaratzeko hasitako espedientea jendaurrean jartzeko epeari hasiera ematea, I. eranskinean agertzen den mugaketan oinarrituz, II. eranskineko deskribapena kontutan hartuz eta babes-araubide gisa III. eranskinean agertzen dena ezarriz. Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, 20 eguneko epea egongo da alegazioak egin eta egokitzat jotzen diren agiriak aurkeztu ahal izateko, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 84. eta 86. artikuluetan jasotzen denari jarraiki. Aipaturiko espedientea Euskal Kultura Ondarearen Zentroan dago ikusgai (Donostia kalea, 1, Vitoria-Gasteiz).

Laugarrena.– Interesdunei, Monumentu izendapenaz Gaubeako (Araba) Villanuevako presa, Sailkatutako Kultura Ondasun deklaratzeko hasitako espedientearen mugaketa, deskribapena eta babes-araubidea jakinaraztea, jakinarazpena jasotako egunaren biharamunetik hasi eta 15 eguneko epean beren eskubideak defendatzeko egokitzat jotzen dituzten alegazioak egin eta dokumentuak aurkez ditzaten.

Bosgarrena.– Indarrean dauden xedapenen arabera espedientearen izapideak jarraitzea.

Seigarrena.– Ebazpena interesdunei, Gaubeako Udalari, Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailari eta Tokiko Administrazioaren eta Lurralde Orekaren Sailari eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailari jakinaraztea.

Zazpigarrena.– Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta ALHAOn argitaratzea, jende guztiak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko irailaren 6a.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea,
ANTONIO RIVERA BLANCO.

Tercero.– Abrir un período de información pública del expediente incoado para la declaración de Bien Cultural Calificado, con la categoría de Monumento, a favor de la presa de Villanueva de Valdegovía (Álava), en base a la delimitación que figura en el anexo I, teniendo en cuenta la descripción del anexo II y estableciendo el régimen de protección que se incorpora como anexo III del mismo, para que durante el plazo de 20 días contados a partir del día siguiente a la publicación de esta Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco, se puedan efectuar las alegaciones y presentar la documentación que se estimen oportunas, como previene los artículos 84 y 86 de la Ley 30/1992, del Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, encontrándose el expediente de manifiesto en el Centro de Patrimonio Cultural Vasco, sito en la calle Donostia-San Sebastián, n.º 1 de Vitoria-Gasteiz.

Cuarto.– Notificar a los interesados la delimitación, descripción y régimen de protección relativo al expediente incoado para la declaración como Bien Cultural Calificado, con la categoría de Monumento, a favor de la presa de Villanueva de Valdegovía (Álava), para que, durante el plazo de 15 días contados a partir del día siguiente a la recepción de la notificación, puedan efectuar alegaciones y presentar la documentación que estimen pertinente en defensa de sus derechos.

Quinto.– Continuar la tramitación del expediente de acuerdo con las disposiciones vigentes.

Sexto.– Notificar la presente Resolución a los interesados, al Ayuntamiento de Valdegovía y a los Departamentos de Euskera, Cultura y Deportes y de Administración Local y Equilibrio Territorial de la Diputación Foral de Álava, así como al Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco.

Séptimo.– Publicar la presente Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco y en el BOTHA para su general conocimiento.

En Vitoria-Gasteiz, a 6 de septiembre de 2010.

El Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes,
ANTONIO RIVERA BLANCO.

I. ERANSKINA

MUGAKETA

Presaren babes-inguruaren mugaketak ondasuna bera hartzen du, alde batetik, eta haren ingurumaria, bestetik, eta gutxieneko distantzia batzuk markatzen ditu, elementuaren kontserbazioa eta haren ezaugarriak bermatze aldera. Horrenbestez, ondoko ingurunearen mugak hauek dira: hiru metro, presaren kanpoko ertz bietatik; hamar metro urari goiti, ura ibaitik kanalera bideratzen duen irekidura barne; eta hogei metro urari beheiti.

ANEXO I

DELIMITACIÓN

La delimitación del entorno de protección de la presa está ceñida a la ocupación física del propio bien y a los espacios adyacentes inmediatos, estableciendo unas distancias mínimas a fin de garantizar la conservación del elemento y sus características específicas. De esta forma, los límites de la zona adyacente serán los siguientes: tres metros a cada lado de la presa a partir de los bordes más exteriores, diez metros agua arriba, donde se incluye la abertura que deriva el agua del río al canal, y veinte metros agua abajo.


ESKALA / ESCALA
30 15 0 30 Meters
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Kultura Ondarearen Zuzendaritza
Kultura Ondarearen Zentroa
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Patrimonio Cultural
Centro de Patrimonio Cultural
Planoa / Plano:
Villanuevako Presa/Presa de Villanueva
Lurraldea / Territorio: ALAVA
Udalerria / Municipio: VALDEGOVÍA / GAUBEA
Data / Fecha: 23/03/2010
Eskala / Escala: 1:1.500

II. ERANSKINA

DESKRIPZIOA

Txostenak aztertzen duen presa Gaubeako udalerriko Villanueva herrian dago, Omecillo ibaian, urez hornitzen zuen errotatik 500 metrora HMrantz, zeina XVIII. mendean jada dokumentatuta baitago. Presaren eginbeharra ibaiaren ur-maila igotzea zen, aipaturiko errota kanalerantz indarrean jarri ahal izateko.

Presak ibaiaren ibilguarekiko angelu txiki bat eginez eraikia dago; zurezko eta harrizko egitura bat da, tamaina eta malda ezberdinetako bi planok eratua. Beraz, urari goiti dagoen arranpala motzagoa da, malda handiagokoa; urari beheiti dagoena, aldiz, leunago jaisten da, presa-oinarria zulatu dezakeen ur-kolpea ekiditeko.

Eraketa honek zurezko estalki baten eraikuntzamoldea gogorarazten du, nahiz eta urari beheiti dagoen zatian egurra harrizko kordoiekin nahasirik agertzen den, kontrahorma moduan. Arrapalak azkentzen dituen gailurra 2,10 metro garai da eta 10,75 metro luze, eta piezaren sekzioa 0,35 metro.

Urari goiti dagoen aldean, egituraren armazoia babesten duen zurezko estalkia ikus daiteke. Urari beheiti dagoena 3,5 metroko luzerako eta 0,25 metroko sekziodun enborrez osatua dago, tobazko harriblokeekin nahastuta.

Urari beheiti dagoen arranpalatik, udaldian, presa ohantzean finkatzen duen zurezko «parrilladura» ikus daiteke. Gutxi gorabehera metro bateko aldea duen erretikulua da, barnealdea harri-blokez beterik duena. Zurezko erretikulua burdinazko iltze batzuen bitartez tinkatuta dago, edota iltzeok arroka naturalaren irtenguneen kontra bermatuta.

Presaren gailurretik 1,8 metrora, ezkerraldean, ura kanalera bideratzen zuen uhatea dago, gutxi gorabehera 1,10 metroko zabalera duena.

Presa zurez eta harriz egindako egitura berezia da, Arabako Lurralde Historikoan dagoen bakarra. Zurezko presak sarri erabili bide ziren garai batean, gelditu diren arrasto ugariei eta dokumentazioari erreparatuz gero, baina gerora harrizkoek hartu zuten haien lekua. Horregatik, ez da ohikoa zur hutsezkoak edo tipologikoa mistoa dutenak –aztergai dugun honetan bezala– aurkitzea. Izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoan gaur egun «in situ» ezagutzen eta kontserbatzen den bakarra dugu. Presa mota hau arkeologia industrialaren benetako erlikia dugu, jada desagertu diren antzinako eraketa eta tekniken testigu bakana. Azpimarratzekoak dira, bestalde, presaren eraikuntza-

ANEXO II

DESCRIPCIÓN

La presa objeto de informe se ubica en la localidad de Villanueva del municipio de Valdegovía sobre el río Omecillo, a unos 500 metros al SO del molino al que dio servicio, y que se documenta desde el siglo XVIII. Su función consistía en subir el nivel del río para desviar el agua que ponía en marcha el citado molino hacia el canal.

La presa, que forma ligero ángulo con el cauce del río, es una estructura de madera y piedra formada por dos planos inclinados de distinto tamaño e inclinación. Así, la rampa aguas arriba es más corta y de mayor inclinación que la de aguas abajo que es más «tendida», evitando así la caída brusca del agua que podría perforar las bases de la presa.

Esta estructura recuerda la composición constructiva de una cubierta en madera, si bien combina en su vertiente aguas abajo la madera con cordones de piedra a modo de contrafuertes. La cumbrera o «gallur» que remata las rampas tiene una altura aproximada de 2,10 m, siendo la longitud del gallur de 10,75 m y la sección de esta pieza de unos 0,35 m.

La vertiente aguas arriba deja ver cerca del gallur el revestimiento lígneo o colomadura que protege el armazón de la estructura. La de aguas abajo, está conformada por troncos de una longitud de unos 3,5 m con una sección de 0,25 m, combinados con bloques pétreos de toba.

Desde la rampa aguas abajo, en su situación actual y en época de estío, se puede apreciar el «emparrillado» de madera sobre el que se fija la presa al lecho. Se trata de una retícula de aproximadamente 1 m de lado con un relleno interior a base de bloques pétreos. La retícula formada por elementos lígneos se sujeta al lecho del río mediante clavos de hierro o apoyados estos últimos en tramos emergentes de la roca natural.

A 1,8 m de la cumbrera de la presa, en su parte izquierda, se encuentra la compuerta mediante la que se desviaba el agua hacia el canal, que tiene una luz aproximada de 1,10 m.

La presa es una singular estructura de madera y piedra, única en su género en el Territorio Histórico de Álava. Las presas de madera que, a tenor de los abundantes vestigios y la documentación escrita, debieron ser de uso frecuente en tiempos pasados, fueron desapareciendo, sustituidas por presas pétreas, por lo que no es frecuente la conservación de ejemplares de ese material o que, como en este caso, presenten tipología mixta. De hecho, en la actualidad este es el único ejemplar conocido y conservado «in situ» en la Comunidad Autónoma Vasca. Este tipo de presas constituyen verdaderas reliquias de la arqueología industrial, verdaderos testigos materiales que nos

sistema mistoa –zura eta harria konbinatzen baititu–, haren kontserbazio egoera balekoa baina delikatua, eta haren interes historiko eta etnografikoa.

III. ERANSKINA

BABES-ARAUBIDEA

I. KAPITULUA
XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.– Babes-araubidearen xedea.

Babes-erregimen honek Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 12. artikulua du oinarri, eta helburua du Gaubeako (Araba) Villanuevako presa monumentu kategoriako kultura-ondasun kalifikatua deklaratzeko prozedura abian jartzea.

2. artikulua.– Aplikazio-eremua.

Ondoren zehazten den babes-araubidea hurrenez hurren I. eta II. eranskinetan ezarritako mugaketaren eta deskribapenaren arabera aplikatuko da.

3. artikulua.– Izaera loteslea.

Babes-araubide honetako arauak lotesleak dira elementuaren gaineko edozein jarduketari begira, eta araubidea errespetatuz zaindu beharko da ondasuna, Euskal Kultur Ondareari buruzko 7/1990 Legeak 37.1 artikuluan ezartzen duenari jarraiki. Era berean, hirigintza-plangintzako tresnei ere eragiten diete araubideko manuek, eta, beraz, tresna horiek ere bete egin beharko dute babes-araubidea, Euskal Kultur Ondareari buruzko 7/1990 Legeak 28.1 artikuluan ezartzen duen bezala. Aipatu lege-arau hori betetzeko, babes-araubide honen helburu den eraikinari aplikatu beharreko hirigintza-planeamenduak nahitaezkoa izango du onartu aurretik Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren aldeko txostena lortzea.

4. artikulua.– Manu orokorrak.

1.– Babes-araubide honek babesten duen ondasuna Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legean ezarritakoaren menpe egongo da baimen, erabilera, jarduera, defentsa, zehapen, arauhauste eta bestelakoei dagokienez.

2.– Ondasunean eta haren ingurumarian egin beharreko esku-hartzeek aldez aurretik Arabako Foru Aldundiko organo eskudunen baimena beharko dute, halaxe xedatzen du-eta Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 29. artikuluak.

remiten a formas y técnicas antiguas que ya han ido desapareciendo con el tiempo. Por otra parte, se debe destacar el sistema constructivo de la presa que combina madera y piedra, su aceptable aunque delicado estado de conservación, y su interés histórico y etnográfico.

ANEXO III

RÉGIMEN DE PROTECCIÓN

CAPÍTULO I
DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1.– Objeto del régimen de protección.

El presente régimen de protección se redacta de conformidad con lo dispuesto en el artículo 12 de la Ley 7/1990, de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco, y en virtud de la incoación de procedimiento para la declaración como bien cultural calificado con la categoría de Monumento de la presa de Villanueva de Valdegovía de Álava.

Artículo 2.– Ámbito de aplicación.

El régimen de protección que se establece a continuación será de aplicación según la delimitación y descripción especificadas en los anexos I y II respectivamente.

Artículo 3.– Carácter vinculante.

Las prescripciones del presente régimen de protección tienen carácter vinculante para cualquier actuación sobre el elemento, debiendo conservarse éste con sometimiento al mismo de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 37.1 de la Ley 7/1990, de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco. Asimismo, estas prescripciones vinculan a los instrumentos de planeamiento urbanístico que deberán ajustarse al régimen de protección, tal como prevé el artículo 28.1 de la citada Ley 7/1990. En cumplimiento del citado precepto legal, el planeamiento urbanístico aplicable al elemento que es objeto del presente régimen de protección requerirá informe favorable del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco.

Artículo 4.– Prescripciones generales.

1.– El bien afecto al presente régimen de protección estará sujeto en cuanto a régimen de autorización, uso, actividad, defensa, sanciones, infracciones y demás extremos a lo previsto en la Ley 7/1990, de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco.

2.– Cualquier intervención en el bien y su entorno quedarán sujetas a autorización de los órganos competentes de la Diputación Foral de Álava, según lo establecido en el artículo 29 de la Ley 7/1990, del 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco.

3.– Ondasun hori botatzeko, osorik edo berorren zati bat, Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeak bere 36. artikuluan xedatutakoa bete eta jarraitu beharko da.

4.– Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeak bere 23. artikuluan xedatutakoa betez, ondasunaren kontserbazio egokia bermatzen duten erabilerak baino ez dira baimenduko.

II. KAPITULUA
ESKU-HARTZEAK

5. artikulua.– Debekatutako esku-hartzeak.

Kultura-ondasunean zuzenean edo zeharka egiten diren esku-hartze guztien helburua ondasun hori osorik babestea eta gerora begira osorik transmititzea da. Hori dela eta, Araban gelditzen den harri-egurrezko presa bakarraren ezaugarriak aldatuko lituzketen esku-hartzeak debekatu egingo dira.

6. artikulua.– Esku hartzeko irizpideak.

Edozein esku-hartze gauzatu baino lehen, esku-hartzearen baliagarritasuna frogatzen duen eta teknikari gaituek eginiko bidezko proiektua egin beharko da. Proiektuan honako hauek jasoko dira, gutxienez:

a) Presaren egungo egoerari buruzko azterketa analitikoa: dokumentazio grafiko xehea (dokumentazio grafiko osoa eta bideoa), dokumentazio topografikoa, azterketa historiko-arkeologiko osoa eta kontserbazio-egoeraren azterketa eta diagnostikoa; gainera, obra egiten den bitartean elementuak babesteko aurreikusitako neurriak jaso beharko ditu, besteak beste.

b) Dokumentu grafikoa, honako deskribapen hauekin: presa osatzen duten elementuetan egin beharreko esku-hartze zehatzak eta bidezkoak diren elementu berriak, erabili beharreko materialak, lanak gauzatzeko faseak (halakorik badago) eta proiektaturiko bukaerako egoera.

c) Kontserbatu beharreko elementuaren bizitza ziurtatzeko eta behar bezala mantentzeko beharrezko teknikak eta baliabideak zehaztea.

d) Esku-hartzearen aurrekontua, lanak babesaraubide honetako manuen arabera behar bezala gauzatzeko behar diren teknika eta bitarteko guztiak kontuan hartuta.

7. artikulua.– Esku hartzeko irizpide orokorrak.

Gaubeako Villanuevako presan egin beharreko esku-hartzeetan, honako irizpide orokorrak gorde beharko dira:

a) Aintzat hartuko da presaren berezitasuna –Araban gelditzen den tipologia horretako azken alea baita, etorkizunari begira eskualdatu beharreko balio

3.– Únicamente podrá procederse al derribo total o parcial del bien de conformidad con lo dispuesto en el artículo 36 de la Ley 7/1990, de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco.

4.– En cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 23 de la Ley 7/1990, de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco, únicamente se permitirán los usos que permitan garantizar la adecuada conservación del bien.

CAPÍTULO II
INTERVENCIONES

Artículo 5.– Intervenciones prohibidas.

El objeto de todas las intervenciones directas o indirectas sobre el bien cultural debe de ser su preservación y transmisión integra al futuro. Quedarán prohibidas, por tanto, aquellas intervenciones que puedan alterar las características de la presa como testimonio del único ejemplar de madera y piedra conservada en Álava.

Artículo 6.– Proyectos de intervención.

La realización de cualquier intervención irá precedida del correspondiente proyecto, realizado por técnicos competentes, que demuestre la validez de la intervención. Dicho proyecto como mínimo contendrá:

a) Estudio analítico del estado actual de la presa que deberá incluir documentación gráfica detallada de su estado actual (documentación fotográfica completa y vídeo), documentación topográfica, estudio histórico-arqueológico completo y examen-diagnóstico del estado de conservación que deberá incorporar, entre otros, las medidas previstas para la preservación de los diversos elementos durante el proceso de obra.

b) Documentación gráfica en la que se describirán: las intervenciones a realizar de forma pormenorizada para los diversos elementos que constituyen la presa y los elementos de nueva creación que resultasen pertinentes, los materiales a utilizar, las fases para la ejecución de los trabajos (si las hubiere) y el estado final proyectado.

c) Determinación de las técnicas y medios necesarios para el adecuado mantenimiento y aseguramiento de la vida del elemento a conservar.

d) Presupuesto de la intervención, acorde con las técnicas y medios necesarios para la adecuada ejecución de las obras.

Artículo 7.– Criterios generales de intervención.

Las intervenciones a realizar en la Presa de Villanueva de Valdegovía deberán respetar, los siguientes criterios generales de intervención:

a) Consideración de su singularidad, por ser el único ejemplar de su tipología en Álava, como valor imprescindible a transmitir a futuro, además del ca-

ezinbestekoa alegia–, bai eta haren eraikuntza-sistema eta interes historiko eta soziala ere. Esku-hartze guztien helburua izango da, horrenbestez, presa bere jatorrizko tokian oso-osorik kontserbatzea.

b) Ondasunean burutzen diren esku-hartze guztiak itzulgarriak izango dira, hau da, erabiltzen diren teknika eta materialek aukera emango dute ondasunaren eraginpeko elementuetan geroko esku-hartzeak egin ahal izateko.

c) Babestutako ondasuna eraberritzeko egin beharreko lanak, teknikoki ahalik eta bermerik gehienarekin egiteko gai direla egiaztatzen duten profesional eta enpresa espezializatuei emango zaizkie.

8. artikulua.– Esku hartzeko irizpide espezifikoak.

1.– Presa eraberritzeko esku-hartzea denboran luzatzen bada, kultura-ondasuna iraunarazteko beharrezkoak diren kontserbazio-lanak egingo dira bertako elementuetan.

2.– Egin beharreko esku-hartzeetan irizpide espezifiko hauek gordeko dira:

a) Ezabatu egingo dira alferrikako gehigarriak eta elementua ondo ikustea eta ulertzea eragotz dezakeen edozein lan berri.

b) Galdu diren edo kaltea izan duten presaren zatiak direla eta, antzeko piezen bitartez osa litezke, hartara babestu beharreko instalazioaren multzoa hobeto ulertzen bada.

c) Presaren zatietan gaur egun dauden material eta akaberen antzekoak eta bateragarriak diren material eta akaberak erabiliko dira.

d) Presa indarrean zegoen garaian estalkirik izan ez zuten tokietan, ahal den neurrian, estaltze berririk ez egiteko ahalegina egingo da.

e) Desmuntatzeko lanak egitea ezinbestekoa bada, aurrez bidezko azterketa egitea eska liteke, eta teknikari gaitu batek sinaturiko proiektua ere bai. Dokumentu horietan bermatu beharko da ondasunari kalterik egingo ez dioten lanak egingo direla.

III. KAPITULUA
PRESAREN KONTSERBAZIOA

9. artikulua.– Administrazioarekiko lankidetza, Gaubeako Villanuevako presa kontserbatzeko lanetan.

Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen V. tituluan aurreikusitakoaren arabera, Eusko Jaurlaritzak, Arabako Foru Aldundiak eta Villanuevako Udalak elkarlanean jardungo dute jabe-

característico sistema constructivo y el interés histórico, etnográfico y social que presenta. El objetivo de cualquier intervención deberá ser, por tanto, la conservación integral de la presa en su ubicación original.

b) Toda actuación a realizar sobre el bien deberá ser realizada de tal modo y con tales técnicas y materiales que posea un carácter de reversibilidad que asegure la posibilidad de futuras intervenciones sobre los elementos afectos al mismo.

c) La ejecución de los trabajos pertinentes para la restauración del bien protegido deberá ser confiada a profesionales y empresas especializadas que acrediten debidamente la capacidad técnica para llevarlas a cabo con las máximas garantías.

Artículo 8.– Criterios específicos de intervención.

1.– En el caso de que la actuación rehabilitadora se prolongue en el tiempo, se realizarán las obligatorias intervenciones de conservación del elemento que fuesen necesarias para garantizar la pervivencia del bien cultural.

2.– Las intervenciones deberán respetar los siguientes criterios específicos de actuación:

a) La eliminación de añadidos superfluos existentes y cualquier género de obra reciente que dificulten la observación y comprensión del elemento.

b) En relación con las partes perdidas o negativamente alteradas de los elementos que constituyen la presa, podrán ser completadas con piezas de características similares en orden a facilitar la comprensión del conjunto de la instalación a proteger.

c) Utilización de materiales y acabados similares y compatibles con los actualmente existentes en las diversas partes de la presa.

d) Se procurará evitar, en la medida de lo posible, la realización de revestimientos en las partes en las que no hayan existido durante la vida activa de la presa.

e) En el caso de que fuera necesario realizar labores de desmontaje, será exigible la redacción de los correspondientes estudios previos y de un proyecto firmado por un técnico competente. En estos documentos se deberá asegurar la realización de tales operaciones sin peligro de incidencias que pudieran afectar negativamente al bien a conservar.

CAPÍTULO III
CONSERVACIÓN DE LA PRESA

Artículo 9.– Colaboración administrativa en la conservación de la Presa de Villanueva de Valdegovía.

De conformidad con lo previsto en el Título V de la Ley 7/1990 de Patrimonio Cultural Vasco, el Gobierno Vasco, la Diputación Foral de Álava y el Ayuntamiento de Valdegovía, en el ámbito de sus

ekin, bakoitzak bere eskumenen esparruan, instalazio hau behar bezalako baldintza egokietan izateko.

respectivas competencias, colaborarán con los propietarios para el mantenimiento de esta instalación en las debidas condiciones de conservación.